



"Neure buruari galdetzen diot ea ezinegona sentitu behar dudan sortzeko"

Usue Egia durangarrak 'Ura leporaino' komiki liburua kaleratu du Nafarroako Deno-nartean argitaletxeagaz. Pandemia garaian egindako hausnarketa prozesu batean oinarritzen den kontakizuna da, umore eta fantasia ikutuak dituena. • **18**



Udalak "etxerik barik" utzi dituela salatu dute Atxondoko Harrera Herrikoek

Atxondo • Apeko Aterpetxea-gaz polemika piztu da. Harrera-koek salatu dute udalak ez diela aterpetxera bueltatzen uzten. Bestalde, udalak dio etxeak ez dituela bizigarritasun baldintzak betetzen. • **6**



Zornotzako krosak urrezko izendapenari eusten dio aurten ere; domekan jokatu da

Zornotza • Zornotzako Nazioarteko Krosak 68. aldia egingo du domekan. Aurten ere nazioarteko egutegiaren barruan jarraitzen du, urrezko izendape-nagaz. Emakumeen eta gizonen lasterketak 12:15ean eta 12:50ean hasiko dira, hurrenez hurren. • **20**

Berrizko San Lorentzo dantza taldeak 70 urte bete ditu aurten

Erreportajea • San Lorentzo dantza taldeko kideek 1952ko abuztuan egin zuten dantzan lehenengoz, Alejandro Aldekoaren gidaritzapean. • **2-3**





San Lorentzo dantza taldeko kideak 60. urteurren jaian.

70 urtean Dantzari Dantzaren jagole

Berrizko San Lorentzo dantza taldeak 70 urteko ibilbidea egin du orain artean; abuztuan egun osoko egitarauagaz ospatu zuten

ERREPORTAJEA • ARITZ MALDONADO

1952ko uztailean, San Lorentzo egunerako hilabete eskasaren faltan, Alejandro Aldekoak dantza taldea osatzea erabaki zuen; auzoko gazte batzuk batu, eta hilabetez jo eta su entseguan aritu eta gero, San Lorentzo egunean dantza egin zuten. Aldekoa, taldearen arima, 90eko hamarkadan hil zen, baina dantza taldeko kideek haren lanagaz jarraitzen dute. "Hilabete eskasean Dantzari Dantza osorik egiteko gai izan ziren mutil koskor haiek; hilabeteen egurra eman behar izan zuten horretarako; goiz eta arrats arituko ziren dantzan", azaldu du Karmelo Angiozar taldeko beteranoenetariko batek. Berriz bertan ez ezik, Aldekoaren

jardunak Euskal Herrian izandako eragina azpimarratu du Ismael Lasarte dantzari beteranoak ere: "Domeketan, Argia dantza taldekoak Donostiatik etortzen ziren, trenez; egun osoa dantzan pasatu eta gero, trenez bueltatzen ziren berrira". 70 urteko ibilbidea ospatzeko, jai egun berezia antolatu zuten abuztuaren 7rako. Bertara gonbidatu zituzten, besteak beste, Argiako lagunak, baina baita Alejandrogaz ikasi zuten beste talde batzuetako kideak ere. Adibidez, Galdakaoko Andra Mari taldekoak. Alejandoren semeak ere taldeko kideak dira gaur egun, German eta Jon.

Dantzari Dantza

San Lorentzoren ezaugarrietariko

bat Dantzari Dantzaren alde egiten duen jarduna da. "Gazteagotan, guk ere pentsatu genuen interesgarria izan zitekeela beste dantza batzuk egitea; Alejandro zenak argi esan zi-

Donostiako Argia dantza taldekoak trenz etortzen Berrizera Dantzari Dantza ikastera

gun genekiena ondo mantentzeko eta ondo egiteko. Hain argi esan zigun, horri eutsi diogula urteotan", azaldu du Angiozarrek. "Beste dantza batzuk ikasita, gura barik sartu

daitezke ikutuak. Horregaitik, guk geureari eutsi diogu urteotan", gaineratu du.

Dantzari Dantzak, gainera, ateak itxi baino gehiago zabaldu egin dizkiela uste dute. Horrela, 2019an Ingalaterrara egin zuten bidaia gogoratu dute. "Berriz ez ezik, Espainian eta Ingalaterran ere dantzatu izan dugu guk. Ingalaterrara joan ginenean, kuriositatez begiratzen ziguten. Izan ere, gurea euren baino dantza exigenteagoa da fisikoki; dantza egin aurretik garagardo bat edateko ohitura zuten, eta harritu egiten ziren gu zaindu egiten ginela ikusita", dio Angiozarrek. "Beharbada ohituago egoteagaitik izango da, baina esango nuke hemen dantzak ez direla behar den

beste baloratzen. Hemendik kanpora balio handia aitortzen zaie", nabarmendu du Lasartek.

Erreleboa lantzen

Urteek aurrera egin arren, Berrizko San Lorentzo dantza taldea osasuntsu dago, kide bien esanetan. Izan ere, umeek bertatik bertara ikusten dute txikitatik plaza dantzan. "Dantzan egiten duen jendea egon badago. Umeak ere badaude,

San Lorentzo dantza talde berriztarak Ingalaterran egin du dantzan, besteak beste

gainera. Beharbada orain ez dute lehen bezain gazte uzten taldea", azaldu du Lasartek. Gaur egun 50 bat lagunek osatzen dute taldea. Ez dakite zenbat dantzari igaro diren taldetik urte hauetan, baina gutxie-



Gure aukerak,
zuretzat onenak!

Saldu, erosi, trukatu, oparitu... EUSKARAZ!

nez ehun bat lagun izan direla azaldu dute. "50. urteurren ospakizunetarako zerrendak egiten aritu ginen, baina gatxa da, izan ere, beti ihes egiten dizu baten batek", gehitu du. Angiozarrek lau hamarkadatik gora daramatza taldean, eta Lasartek hogeita hamar urtetik gora. "Badira batzuk", diote barre artean. Orain urte batzuetatik, gazteak erreleborako prestatzen dabilta. "Orain urte batzuk hasitako umeek adin bat dute jada, eta horiek plaza-rako jauzia eman behar dute, eta baita gehiagotan irten ere", esan dute. Dantza taldean bizi den giroak horretarako duen balioa ere nabarmendu dute. "Batzuon kasuan, etxetik dugu dantzarekiko zaletasuna, eta

hori umei transmititu diegu gero, baina badago kasuren bat gurasoak hasi direna dantzan euren umeek dantza egiten dutelako". Horrela, "giro ona eta familia giroa" azpimarratu dituzte 70 urteko ibilbideari eusteko gako lez, baita urte gehiagoz ekiteko ere.

Sarrimendiko erreplika

1990ean Txistulariaren eskultura ipini zuten Sarrimendiko gailurrean, Alejandro Aldekoa txistulari berriztarra gogortzeko eta eskola-kirola omentzeko; Josu Maortua zaldibartarrak egin zuen eskultura. Urtarrilean ostu egin zuten eskultura originala, eta maiatzean erreplika bat ipini zuten.



60ko hamarkadako argazki bat.



San Lorentzo Ingalaterran.



Urteurren ospakizun batean.



Ismael Lasarte eta Karmelo Angiozar.

“Oso polita izan zen 90 urte inguru dituzten Arriaga, Urquijo eta Agirrebeitia kalejirara batzea”

Angiozarrek eta Lasartek lau hamarkada daramatzate dantzan San Lorentzo taldean

ERREPORTAJEA • A. M.

70. urteurrena ospatzeko, San Lorentzo dantza taldeko kideek egun osoko egitaraua egin zuten abuztuan. Euskal Herriko hainbat dantza talde gonbidatu zuten egun berezarako. Horrez gainera, sorrerako taldean zebiltzan hiru lagunek ere parte hartu zuten kalejiran, urteotan egindako hartu-eman sendoaren erakusle lez.

Zelan joan zen urteurren ospakizuna?

Karmelo Angiozar: Eguna bera oso polita irten zen. Alejandreorenean batu ginen, eta gero kalejira bat egin genuen San Lorentzora bidean. Txistulariak ere gugaz etorri ziren.

Ismael Lasarte: Guk lau talde batu genituen, baina dantzari zaharragoak ere batu ziren, dantzari jantzitan etorri ez arren; herriko jendea, lagunak eta ezagunak etorri ziren ermitaraino. Dantzan egin eta gero, oroigarri batzuk banatu genizkion aspalitik lanean dabilen jendeari. Aitortza bat izan zen, jendearen lana eta inplikazioa eskertzeko modu bat.

K. A.: Alejandreoren seme biak, Jon eta German, txistulariak dira oraindino; German Berrizko txistulari ofiziala da. Aktibo dauden betereoenei ere eman genien oroigarria, baita Iñaki Arbururi ere. Horrez gainera, oso polita izan zen Jesus Arriaga,

Javier Urquijo eta Segundo Agirrebeitia kalejirara batzea; San Lorentzoko lehenengo taldeko kideak dira, oraindino bizirik daudenak. Kalejiran parte hartu zuten, eta gero gugaz bazkaldu zuten. Hori 90 urtegar. Ez dago batere txarto!

I. L.: 180 bat lagun batu ginen bazkarian, eta gero Aiko erromeria taldeagaz dantzan aritu ginen gauera arte. Oso eguraldi ona egin zuen eta giro polita egon zen. Makina bat lagun eta dantza talde gonbidatu genuen, baita auzoetako lagunak ere.

Umei lagundu egin behar zaie etaplazara gehiago atera

Urteurrena dela eta, egingo duzue beste ekitaldirik?

I. L.: Ez, gure helburua ez zen gehiagorik egitea. Korrikan kilometro bat hartzea erabaki genuen, jai bat egin genuen, eta dantza taldearen izena gehiago zabaldu dugu.

K. A.: Ez dugu behar gehiago egitea. Guk batzea eta San Lorentzo eguna elkarrengatik pasatzea baino ez genuen buruan.

Taldea osasuntsu dago?

K. A.: Esango nuke Berriz nahiko zorionekoa dela. Gazteek betida-

nik ikusten dutenez dantza, eta jende heldua ikusten dutenez, eurak ere animatzen dira. Umeak ere badaude. Iurretaz eta Garaigaz batera, Berriz da Dantzari Dantzari eusten dion bakarrene-tarikoa eskualdean.

I. L.: Esango nuke arazo gehiago dagoela txistulari eta atabalariekin. Egon badago, baina ez dute konpromisorik gura. Adibidez, kontserbatorioko txistulari asko dago, baina gero ez dute plaza-rako jauzia egiten. Pandemiak ere ez du batere lagundu. Gu oso pozik gaude, betiko antzera gabiltzalako. Orain erreleboa egiten gabiltza, umetan hasitakoek jada adin bat dutelako, eta horiek ere jauzia eman behar dutelako. Lagundu egin behar zaie, eta plaza gehiago atera.

Noiz arte jarraituko duzue dantzan?

K. A.: Hankak dabilta bitartean, nik ez dut erretiratzeko asmorik (barrez)! Guri dantzak asko eman digu: lagunak, giroa, jende asko ezagutu dugu, eta baita beste herrialde batzuk ere. Alejandro zenari beti esaten nion inork ere ez zeukala berearen moduko ofiziorik. Danbolintero ofizioa beti izan da alegera, beti ospakizunetan zeudelako. Jende berria ezagutzen duzu, normalean jaietan, eta jendea umore oneko egoten da horrelakoetan. Gure aldetik, lanean segituko dugu horrelakoek aurrera jarraitu dezaten.

Lehenengo asteak utzitako biharamuna pasatuta, durangarrak prest daude jaietako bigarren astebururako

Tortilla txapelketa, mozerro eguna eta Merina Gris zein J Martina taldeen kontzertuak izango dira asteburu honetako hitzordurik esanguratsuenak



Txosnetako gazte bazkarian 800 bat gazte batu ziren (ezkerrean). Kuir Eztandak armairu ibiltari bat eramanda egin zuen zapatuko poteoa (eskuman).

DURANGO · EKAITZ HERRERA
Deskantsurako tarte bat hartu ondoren eta ibuprofeno bat edo beste irentsi eta gero, durangarrak prest daude berriro ere jai giroan sartzeko. Musika moderno eta garaikidea gura duenak Merina Gris, Peio eta Itsua eta J Martina izango

ditu gaur txosnagunean. Doinu elektronikoak La Casa Azul taldeak ipiniko ditu, gaur bertan, Ezkurdin. Bihar, mozerroren zoroenak erakusteko eta patata tortillarik finenak dastatzeko txanda izango da. Herritarrek *Denboraren makinan* inspiratuta mozerrotu beharko

dute, eta Landako Guneak patata tortilla txapelketaren hamahirugarren edizioa hartuko du eguerdian.
Erreka garbitzea domekan
Durangoko jaietako amaiera emateko, erreka garbituko dute domekan. Udalak, arrantza eta ehiza elkar-

teak, Jai Batzordeak, Auzo Alai elkarteak, Juan Itziar kultur elkarteak, Ourdaibyk eta Marisatsak antolatu dute ekintza. 11:00etatik 13:30era garbituko dute erreka, hainbat gunetan. Bertan parte hartu gura duenak 11:00etan Pionondo Etxean egon beharko du.

Antolatzaileek eskularruak, salabardoak, pintzak eta zabor-poltsak eramango dituzte. Oinetako eta arropa egokiak parte hartzaileek eurek eraman beharko dituzte. Udalak auzolanean lan egiteko deia egin du.
Aurreko asteburuak askorako eman du. Zea Maysek jendetza batu zuen zapatuan Ezkurdin, eta Vulk eta Los Zopilotes Txirriak taldeek txiki utzi zuten txosnagunea bari-kuan. Jan-edanari dagokionez, asteburuak arrakastatsua izan da. Paella lehiaketak argi utzi zuen, gatz bari-rik zein gatz askogaz, lagunartean bada, paella gozo-gozo egoten dela. Kuir Eztanda kolektiboko kideek sexu askapenari buruzko aldarrikapenak kaleratu zituzten Alde Zaharrean. Gurdi eta armairu bitxi banagaz zeharkatu zuten Goienka-lea. Eta Landako Eskolako ikasleek bertso bi bota zituzten txupinazo txikian; jaiak gozatzera deitu zituzten herritarrek. Asteburu honetan ere durangarrek gogotsu beteko dute eskari hori. Jaiak ordu asko du aurretik.

Mallabiko urriko jaiak

URRIAK 22, larunbata
10:00 Mallabitarrok egina
Irteera petriletik
Izen-ematea: 663 070 492 telefonoan edo Kultur Etxean
Antolatzailea: Berbalagun
9:00 Nesken frontenis maratokia (bikoteka) herriko frontoian
Antolatzailea: A.D. Mallabia F.T.

URRIAK 23, igandea
9:00 Nesken frontenis maratokia (bakarka) herriko frontoian
Antolatzailea: A.D. Mallabia F.T.

URRIAK 27, osteguna (GAU BELTZA)
19:00 Hitzaldia: "Oiz mendia: gune sakratua. Lau milurteko hileta praktikak", Kontzejuzarrean
Antolatzailea: Udalak

URRIAK 28, ostirala
17:00 Txondor Herri Kirol taldearen erakustaldia parkean
Antolatzailea: Txondor Herri Kirol taldea
18:30 Txupinazoa Kontzejuzarreko balkoitik
19:00 Elizpeko pilota txapelketaren finala elizpean
Laguntzailea: Udalak

20:30 Oilasko pintxoak parkean
Tiketak: 1,50 €
Antolatzailea: Udalak
21:00 eMePebo5t taldea, parkean
Antolatzailea: Udalak
00:00 DJ Gorka Perez, parkean
Antolatzailea: Udalak

URRIAK 29, larunbata
11:00 Duetlo txikia herri barruko zirkuituan
Antolatzaileak: Guraso elkarteak eta Udalak
12:00-15:00 Mallabiko V. Arda Ferixie probalekuan /Sarrera: 7 €
Pintxoak, salgai Mallabiko tabernarietako eginda
Antolatzaileak: Udalak eta Ardosaltsan
14:30 Herri bazkaria: paella, parkean
Tiketak salgai jarriko dira (Aukeran autogestionatua)
Antolatzaileak: Guraso elkarteak eta Udalak
18:00 Kick Boxing gaia herriko frontoian
Sarrera kantxan: 15€ /Sarrera gradan: 10€
19:00 Kale animazioa Dunbots elektrotarangarekin
Antolatzailea: Udalak
22:30 Kontzertuak parkean: Gozategi, Chill Mafia eta Txurru
Antolatzailea: Udalak

URRIAK 30, igandea
16:30 Tor magoa umeentzat probalekuan
Ondoren txokolatada
Antolatzailea: Udalak
13:00-19:00 I. Autoen Slaloma Goitondo Beheko Lau
Antolatzailea: Udalak
17:00 Mus txapelketa Kontzejuzarrean
Antolatzailea: Udalak
Sariak:
1. saria: 120€ eta garaikurra
2. saria: 100€
3. saria: 80€
4. saria: 60€
Izen-ematea: 10€ bikoteko

URRIAK 31, astelehena (GAU BELTZA)
Sorgina Txirulina: ipuin kontaketa musikatua liburutegian
17:00 3-5 urte bitartekoentzat
17:30 6 urtetik gorakoentzat
18:00 Kalabazak hustu; aurpegiak eta kareak margotzea parkean
19:00 Iluntasuna piztu...ekitaldia!
Ondoren txorizo pintxoak
Bukatzeak: Trikiti poteoa Takitto taldearekin
Antolatzaileak: Herri Ekimena, Satxibu, Mendibil abesbatza, Guraso elkarteak eta Udalak

Antolatzaileak:
Mallabiko Udalak
Herriko elkarteak



Atxondo Harrerako kideek salatu dute udalak ez diela Axpeko aterpetxera bueltatzen uzten

Atxondo Harrera Herriak mobilizaziora deitu du gaurko, urriak 21. 18:30ean izango da, Atxondoko plazan

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2018an Atxondo Harrera Herria sortu zuten, Euskal Herrira heltzen diren migratzaileei harrera egin eta laguntza humanitaria emateko. Harrezkero, Harrera taldekoek Axpeko aterpetxea izan dute egoitza, baina orain Atxondoko Udalak ezin direla bertara

bueltatu esan diela salatu dute. Azken urteotan, Hamada Izarrak elkarteak eta Harrera Herriak erabili izan dute aterpetxea. Uda sasoian ume sahararrei uzten zieten aterpetxea, eta Harrerakoak udazkenean bueltatzen ziren bertara. "Orain aterpetxera bueltatzea egokitu zaigunean, udala

inspekziarako txosten baten zain dagoela eta Axpeko etxera ezin gara bueltatu esan digute. Txosten hori heldu arte Axpeko aterpetxea eskatu diogu alkateari, gure erantzukizunpean, kalean egotea baino duinagoa delako. Gainera, etxe hori bizitzeko moduan dago, orain egun batzuk arte ume sahararrak bertan izan dira eta", azaldu dute.

Harreran dauden zazpi migratzaileak Atxondo Harrerako kideek bilaturiko etxe batean egon dira azken hileotan, baina orain utzi egin behar dute etxe hori. "Etxe horretan bai, lanak egin behar dituzte eta kanpora joan behar dira. Kalean geratzen dira", jarraitu dute Harrerakoek. Beraz, euren egoera salatzeko, mobilizaziora deitu dute barikurako. 18:30ean izango da, udaletxe azpian. "Etxerik barik utzi gaituzue baina etxea badugu, zatoz udaletxe azpiko Harrerako etxe berriaren inauguraziora, luntxa eta txokolate beroa gure kontu", amaitu dute.

Xabier Azkarate Atxondoko alkateak ANBOTOrri esan dionez, ume sahararrak bertatik irten zirenean prebentziokoak etxea ikustera joan ziren eta arkitektoaren txostena eskatu zuten. Udaletik azaldu dutenez, txostenaren arabera aterpetxeak momentu honetan ez ditu bizigarritasun baldintzak betetzen eta 500.000 euroko inbertsioa behar du. "Udalarentzat oso inbertsio handia da. Beraz, aterpetxea itxita mantentzea erabaki dugu. Betiere bertan bizi diren pertsonen segurtasuna zaintzeko asmoz", azaldu dute prentsa oharrean.



Axpeko aterpetxea.

Abadiñoko baserrien inbentarioa egingo dute, hauen kontserbazioa errazteko

Abadiñoko Udaletik jakinarazi dutenez, udaleko langileak herriko baserriak bisitatzen dabilta aurrez aurre informazioa emateko eta jendeari inbentarioa egiten laguntzeko

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoko Udalak baserrien inbentarioa egiteko prozesua martxan ipini du, indarrean dagoen lege esparruaren barruan baserrien babesa bermatzeko eta horien kontserbazioa indartu eta errazteko. Inbentarioa egiteko, udalak galdeteka bat ipini du webgunean, eta horregaz landa eremuko higiezin horien errealitatea ezagutu gura dute. Horrez gainera, udaleko langileak herriko baserriak bisitatzen dabilta informazioa emateko.

"Abadiñoko baserrien errealtatearen inbentario bat izatea da helburua, egungo arau esparruan baserrien kontserbazioa errazteko", azaldu du Mikel Garaizabalek.



Lapurreta saiakerak Gaztetxean eta Erdellako lokalean

Joan zen asteburuan egin zuten lapurreta saiakera

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Asteburuan Elorrioko zenbait lokalean lapurretan egiten ahalagindu zirela salatu zuten sare sozialetan. Gaztetxe-koek salatu zuten lehenengo, eta Erdella Mendizale Taldekoek gero. Gaztetxe-ko eta Erdellako kideek horrelako

erasorik ez dutela onartzen adierazi zuten. "Elorrioko gaztetxe-ko kideok ez dugu espazio autogestionatuenganako inongo erasorik onartuko", esan zuten Gaztetxe-koek. Horrelako ekintzek "mina" ematen dutela gaineratu zuten Erdellakoek.



Elorrioko Gaztetxe-ko leihoko argazkia.



Martitzenean aurkeztu zuten proiektua herrian.

Herrizaintza, bakardadean dauden pertsonen bizi kalitatea hobetzeko proiektua

Proiektuan herritar guztiek parte hartu dezakete, erabiltzaile zein boluntario legez

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Martitzenean, Herrizaintza proiektua aurkeztu zuten herritarren aurrean Elorrion. Bakardadean dauden pertsonen bizi kalitatea hobetzeko proiektua da. Herrizaintza proiektuaren bitartez, udalak, askotariko eragile sozialekin elkarlanean, sare komunitario bat eratu gura du, beharturiko bakardadearen ondorioak leundu eta arrisku egoerak saihesten laguntzeko. Udaletik azaldu dutenez, "gura ez den bakardadeak eragin suntsitzailea izan dezake osasunean, pertsonen ongizatean eta bizi kalitatean, batez ere adineko pertsonengan".

Proiektuan herritar guztiek parte hartu dezakete, erabiltzai-

le zein boluntario legez. Bakarrik bizi dena zein adineko edo dependentsia egoeran dagoen pertsona bategaz bizi dena izan daiteke erabiltzailea. Baita bakarrik sentitzen diren elorriarrak ere, edo hartu-eman pertsonalak aberastea gura dutenak. Proiektuan parte hartu gura duenak 688 655 461 telefono zenbakira deitu edo herrizaintza@elorrio.eus helbidera idatzi dezake.

Elorrioko Udaletik jakinarazi dute auzotar, saltoki, farmazia, boluntario, entitate eta ekipamenduekin lan egiten dutela, herria giza komunitate bihurtzeko eta proiektua aurrera eramateko.



udagoieneko ostera

musikaren
kate-
begiak **kontzertu
zikloa**



AZAROAK 3 | BILBO

**KORRONTZI
KALAKAN**



AZAROAK 12 | IGORRE

**NIKO ETXART
ETA HAPA HAPA
KEROBIA**



AZAROAK 19 | ZALLA

**LIN TON TAUN
SUA**



AZAROAK 26 | BERRIZ

**LA BASU
JMARTINA**

AZAROAK 26
ZAPATUA
19:00
KULTURETXEA
BERRIZ

INFO+ udagoienekoostera.eus



+
**BAKARRIZKETA
UMORETSUA**



Antolatzailea



euskaltzaleen
topagunea

Babeslea:



Laguntzaileak:



IGORREko
Udala



anboto
kide


Anbotokideen txokoa

URRIKO SARIAK




Mendigoikoa Bekoa jatetxean bi pertsonentzako eguneko menua.

Hitz liburu dendako liburuak:



Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Olazar pilotalekuko estalkia eta kantxako sarbidea konponduko dituzte

Lanek 189.322,84 euroko kostua izango dute eta 10 asteko epea izango dute gauzatzeko

ZALDIBAR • J.G.

Zaldibarko Olazar udal pilotalekuko estalkia eta kantxarako sarbidea hobetzen hasi dira asteon. Udalak prentsa ohar batean azaldu duenez, lanek 189.322,84 euroko kostua izango dute eta hamar asteko epea

izango dute gauzatzeko. Zeramikazko teilazko estalkiaren egungo estaldura ordezkatu dute, kantxako instalazioan larrialdiko irteerako egungo atearen neurriak handituko dituzte bitarteko osagarriak sartu ahal izateko, eta instalazioak

berrituko dituzte estalkiko urak husteko. Kantxarako sarbidea hobetzeko, alboko fatxadetan zulo bat egingo dute. Eta, estalkian, lehendik dagoen teila ordezkatu eta xafla transpiragarri eta iragazgaitza duen teila zeramiko mistoa ipiniko dute.



Zaldibarko frontoia.

Zaldibarko Mintzalagunen izena emateko epea, zabalik

ZALDIBAR • J.G.

Mintzapraktikak lagun artean euskaraz aritzeko aukera ematen du. Kasu askotan, euskaraz aritu gura dutenek ez dute euren inguruan aukerarik izaten euskaraz berba egiteko, horretarako lagunik ez dutelako, eta beste kasu batzuetan ez dute euskaltegian ikasitakoa praktikan ipintzeko aukerarik. Bada, batzuek zein besteek Mintzapraktikan aurkitzen dute euskaraz lagun artean aritzeko aukera. Euskaltzale asko talde horretara batzen dira, euskaraz aritzeko espazioak eta aukerak zabaltzen lagundu gura dutelako.

Gaur egun, 7.000 herritarrek baino gehiagok parte hartzen du-

te Euskal Herrian Mintzapraktika egitasmoetan; astean behin elkartzen dira, talde txikitan euskaraz aritzeko: bidelariak (euskaraz ikasten dabiltzanak edo ohitura berreskuratu gura dutenak hizkuntza praktikatu) eta bidelagunak (euskara erraz erabiltzen dutenak eta ikasten dabiltzanei euskaraz praktikatzeko laguntzeko borondatez izena ematen duten euskaltzaleak).

Jadanik zabalik dago Zaldibarko Berbalagunen izena emateko epea. Ondoko bideak baliatu daitzke izena emateko: labur.eus/zaldibarkoberbalaguna galdetegia beteta edo udaletxean eta liburutegian dauden eskuorriak beteta.



Mintzapraktikako talde baten argazkia.


Legañoko inguru naturala ezagutzeko bisita gidatua, domekan

BERRIZ • J.G.

Berrizko Udalak, Aranzadi Zientzia Elkarteko Botanika sailagaz elkarlanean, doako bisita gidatua antolatu du Legañoiko basoaren ingurua ezagutzeko. Datorren domekan izango da, urriak 23, 11:00etan. Oinezko ibilbidea izango da, eta natura- eta ondare-ingurune hori ezagutarazteko helburua du, azken urtean Berrizko natura-ondarea babesten lan egin duten profesionalen eskutik (espezie inbaditzaileen erauzketak, bertako habitatak berreskuratzeko egindako landaketak eta Legañoiko baso berritze lanak). Kilometro bi inguruko ibilbidea izango da, euskaraz eta gaztelaniaz emango dituzte azalpenak, eta ordu eta erdiko iraupena izango du. Bisitaren irteera puntua Berrizko hilerria izango da. Bisita doakoa izango da, baina alde aurretik izena eman beharko da berriz@berriz.eus helbidera idatzita edo 94 682 40 36 telefonora deituta.



Ostalaritza gida




*Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!*

**Zornotza**



XIBERU
Zezilia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946181758
Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

**Durango**



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.

**Iurreta**



GAUARGI
Dantzari 4 behea, IURRETA
Tel.: 944 356 674
Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

**Durango**



IBAIZABAL
Ibaizabal taldea, 2B - DURANGO
Tel.: 946 550 185
Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.

**Durango**



AI AMA
Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO
Tel.: 946 232 240
Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!

**Abadiño**



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.



Gozategik, Chill Mafiak eta DJ Txurruk kontzertuak emango dituzte Mallabiko Urriko jaietan

Musika jaialdia urriaren 29ko larunbatean izango da; baina asteburu honetan ere badago zertaz gozatua Mallabian

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Datorren asteburu biak ekimenez beteta datoz Mallabian, Urriko jaiak izango dira eta. Egitarau zabalaren barruan, musika kontzertuak nabarmendu daitezke. Aurtengo jaialdia Gozategi eta Chill Mafia taldeek eta DJ Txurruk osatuko dute. Kontzertuak bigarren asteburuan izango dira, 22:30ean, parkean.

Baina asteburu honetan ere badago zertaz gozatu. Zapatu honetarako, Berbalagunek Mallabiko hainbat txoko ezagutzeko irteera bat prestatu du. 10:00etan irtengo dira, petriletik. Edizio honetan, Zengotita auzoko altxorak ezagutuko dituzte. Oizerako bidean, Markoigo kartzela ikusi aurretik, Peio Mugarzak eta Julian Bilbaok kartzelaren inguruko kontuak azalduko dituzte arropa garbitokian. Ondoren, kartzela bertatik bertara ikusiko dute, eta handik jaistean Bilbaok bere baserrian dituen zurezko taillak erakutsiko ditu. Amaitzeko, Okako errepide

berriztuan ibiliko dira, eta bueltan ermitan bazkalduko dute.

Asteburuko beste ekitaldi nagusia Mallabia Kirol Elkarateak antolatzen duen nesken frontenis maratoia izango da; zapatuan bina-

kako txapelketa jokatu dute, eta domekan buruz burukoak.

Aste barruan, 'Oiz mendia: gune sakratua, lau milurteko hileta praktikak' izeneko berbaldia nabarmendu daiteke. Eguenean

izango da, 19:00etan, eta bertan Oiz mendiko arlo batean azaleratu diren hilobien gaineko azalpenak emango dituzte. Besteak beste, Pirinioetako Cromlech izenekoak aurkitu dituzte bertan.



Gozategi taldea sortu zeneko 30. urteurrena ospatzen dabil aurtien.

Mañariko kiroldegia 12tik 16 urtera artekoentzat ere erabilgarri egongo da aurrerantzean

MAÑARIA • J.D.

Mañariko Udalak moldaketa bi egin ditu kiroldegiko erabilera arautzen duen ordenantzaren. Alde batetik, zabaltu egin dute kiroldegia erabiltzeko adin tartea. Orain arte, 16 urtetik gorakoentzat zegoen mugatuta. Aurrerantzean, 12tik 16 urtera artekoek ere erabili ahal izango dute kiroldegia, beti ere guraso edo tutore baten zaintzapean. Adin tarte horretako erabiltzaileei ikasleen kuota kobratuko zaie eta gurasoen txartelagaz sartu ahaliko dira.

Bestetik, ordutegia zabaltu dute. Goizetan, orain arte baino orduerdi lehenagotik erabili ahal da kiroldegia: 06:30etik hasita, 07:00etatik barik. Gaueko itxiera ordua orain arte lez mantenduko dute, 23:00etan.

"Herriarren partetik egon diren eskaerak aintzat hartu ditugu aldaketa horiek egiteko", adierazi du Ainara Otxotorena alkateak.

"Alboka lehenengoz entzun nuenean beste mundu bateko soinua iruditu zitzaidan"

Fede de Diosek musika ikastaroak eman gura ditu Izurtzan



Fede de Dios Izurtzan bizi da orain dela hiru hiletik hona.

IZURTZA • J.D.

Fede de Dios galdakoztarra musika instrumentu askoren inguruko ikastaroak ematen dabil azken hiru hamarkadetan. Gaur egun Izurtzan bizi da eta bertan eman gura ditu klaseak orain. Hain zuzen ere, alboka, pandero, dultzaina, dan-

bor, goilara, txaramel eta kainubera ikastaroak emateko prest dago. Klaseak hartu gura dituztenek Izurtzako udaletxean galdetu dezakete edo info@albokerue.com helbide elektronikoaren bitartez ipini daitezke beragaz hartu-emanetan. Fede de Diosek musika ikasketak

egin zituen gaztetan. Harrezkero, ikastaroak eman ditu Galdakaon, Santurtzin eta Ondarroan, besteak beste. Abadiñon eta Durangon ere aritu da irakasle. Durangon 19 urtez eman zituen alboka eskolak, udalak antolaturiko ikastaroetan. "Orduko ikasle batzuk berreskuratuko banitu eta berri batzuk animatu balira Izurtzan ikastaroak eman nitzakeela pentsatu nuen", adierazi du de Diosek ikastaroak antolatzeko ideiarri buruz.

Berak sorturiko webgune bat ere badu: www.albokerue.com. Bertan, albokaren gaineko bideo tutorialak ditu. "Ikasleak etxera joandakoan laguntza bat izan dezaten sortu nuen", dio.

Alboka, instrumentu berezia

Alboka instrumentu berezia da de Diosentzat, eta oraindino gogoan du umetan lehenengoz entzun zuen eguna. "Galdakaoko Elealde auzoko jaietan nengoan. Nire arreta erakarri zuen soinu bat entzun nuen, baina ez nekien nondik zetorren. Bila hasi nintzen eta bat-batean Leon Bilbao alboka jotzen ikusi nuen. Albokaren itxurak harritu egin ninduen, bere adar formagaz. Baina soinuak eragin zidan inpresiorik handiena. Lehenengoz entzun nuenean beste mundu bateko soinua iruditu zitzaidan", gogoratu du.

Domekan nekazaritza eta artisautza azoka egingo dute

Askotariko postuak ipiniko dituzte udaletxeko plazan

OTXANDIO • J.D.

Otxandion nekazaritzako elikagaien eta artisautza produktuen inguruko azoka egingo dute domekan. Herriko plaza nagusiko luze-zabalean ipiniko dituzte postuak, 10:00etatik 14:00etara. Antolatzailleen esanetan, azokan egindako erosketa guztiak tokiko produktu sorten zozketan sartuko dira. Azoka Gorbeialde elkartearen eta Otxandioko Udalaren

artean antolatu dute, Aldundiaren laguntzagaz. Gorbeialdek 'Herri bat, merkatu bat' izeneko programa berri bat hasi zuen 2020an, eta asteburuko azoka hor kokatzen da. Herrietan antolatzen diren ohiko azokak egiteaz gainera —Otxandiokoa abenduan izaten da—, berri batzuk antolatzeko eta ekoizleei euren produktuak saltzeko gune gehiago eskaintzea da ekimenaren helburua.



lazko urrian ere egin zuten 'Herri bat, merkatu bat' programaren barruko azoka.

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Udalak azpiegitura berri bat atonduko du udaletxearen azpiko lokal batean udal brigadako beharginentzat. Eremu biko azpiegitura bat prestatzea da udalaren asmoa. Beharginentzat aldagela bat ipiniko dute batetik, eta beharginek biltegi lez zein lanerako eremu lez erabili ahaliko duten gune bat bestetik. Erramun Osa alkatearen berbetan, beharginek ez dute euren lanerako eremu bat izan orain arte eta azpiegitura berriak "duintasunez" lan egiteko modua emango die aurrerantz. "Orain arte halamoduz ibili dira laneko arropa han-hemenka aldatzen. Laster aldagela bat izango dute. Horrez gainera, eguraldiak laguntzen ez duenerako lan eremu bat izango dute; mantentze-lanak prestatzeko, adibidez", dio Osa. Garaiko udal brigadan behargin bi daude era finkoan, baina tarteka langile gehiago batzen da taldera, Mankomunitateak eskaintzen dituen laneratze programak direla eta.

Aho batez

Azpiegitura atontzeko aukeratu duten lokala udaletxetik behera doan aldatsean dago, herriko tabernaren azpian, orain arte autoak aparkatzeko erabili izan den garajea. Obrak esleituta daude eta,

Garaiko Udalak aldagela bat atonduko du udal brigadako langileentzat

Obrak egingo dituzte udaletxearen azpiko lokal batean, beharginentzat aldagela eta lantokia atontzeko



Garain atonduko duten lokala.

aurreikuspenen arabera, hiru bat hilabete iraungo dute, lanak hasien diren.

EAJk eta Herriko Taldeak aho batez erabaki dute azpiegitura honi argi berdea ematea. Hain

zuzen ere, aurrekontuetan jasoriko proiektua da. Garaiko Udalak 99.700 euroko inbertsioa egingo du azpiegitura berria sortzeko. Foru Aldundiak 39.000 euroko ekarpena egin dio aurrekontuari.

Mankomunitatea edukiontzi marroiaren erabilera sustatzen

Aurten iaz baino 800 etxe gehiagotara heltzea da Durangaldeko Mankomunitatearen helburua; guztira,

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Durangaldeko Mankomunitateak 'Zure esku dago: zaborra ala lurra' kanpaina aurkeztu du asteon. Kanpaina honen helburua eskualdeko herritarrek edukiontzi marroia erabiltzearen garrantziaz sentsibilizatzea da eta kanpainagaz bat egindako etxebizitza kopurua %50 handitzea.

Kanpaina indartzeko, herri-rik herri berau aurkeztu eta herritarrei azaltzen ibiliko dira,

baita edukiontziak banatzen ere. "Mankomunitateak konpromiso sendoa hartu du Durangalde jasangarriagorantz aurrera egiteko, eta herritarren laguntza behar dugu hori lortzeko. Herritarrengana heltzeko ahalegina areagotuko dugu, herri bakoitzera hurbilduz, organikoa ondo kudeatzearen onurak eta garrantzia azaltzeko", adierazi du Mireia Elkoroiribe Mankomunitateko presidentek.



Eguaztenean egindako aurkezpeneko argazkia.

Joseba Sarrionandia liburuak erretzeaz arituko du Iurretan

Liburutegien Eguna baliatuta, idazle iurretarrak 'Liburu erreketak' berbaldua emango du urriaren 24an, bibliotekan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Liburutegien Eguna ospatuko da astelehenean, urriaren 24an. Bada, 1992an Balkanetako gerran Sarajevoko liburutegia suntsitu izana oroitu gura duen egun hori baliatuta, Joseba Sarrionandia idazleak *Liburu erreketak* hitzaldia emango du Iurretan, bibliotekak antolatuta. Historian zehar erre diren biblioteka eta liburuen kasuak ezagutu eta salatzen eskualdia izango da, "horrelakorik

gehiago ez gertatzeko esperantzaz", diote bibliotekako antolatzaileek. Berbaldua 18:30ean hasiko da. Izena emateko, 94 681 27 26 telefono zenbakira deitu daiteke. Bestela, biblioteka@iurreta.eus helbidera edo 688 863 736 whatsappera idatzi daiteke. Bibliotekak zentro sozializatzaile eta integratzaileak izatea du helburu, azaldu dutenez, "kultura herritar guztientzat eskuragarria izan behar duen eskubidea delako".

Durangaldeko pentsiodunak Madrilen izan dira pentsio "duin eta publikoak" aldarrikatzen

DURANGALDEA • M.Z.

Hego Euskal Herriko pentsiodunen plataformakoak Madrilera joan ziren joan zen zapatuan "pentsio duin, publiko eta bidezkoen alde" bildutako sinadurak Diputatuen Kongresura eramatera. Durangaldeko kideak ere bertan izan ziren. Erostea ahalmena izatea, sistema publikoa bermatzea eta 1.080 euroko gutxieneko kopurua eskatu zuten. Pentsioen erreforma berriaren aurrean, "pentsioak doitzeko" ere eskatu zuten, prekaritatea atzean uzteko. Joan zen zapatuan egin zuten mobilizazioa.



Durangaldeko pentsiodunak Madrilen egon ziren joan zen zapatuan.

**Seguros Bilbao**

**RUEDA BILBAO
ASEGURUAK
Jabier Rueda**
Landako etorbidea, 1 DURANGO

ORDUTEGI BERRIA: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 15:30era
Zenbaki hauetan emango diogu lehentasuna bezeroari:
946 20 27 10 / 688 86 11 37
Egunero eskainiko dizugu gure arreta ondorengo helbidean:
jrueda@segurosbilbao.com

**HUTSUNERA SALTO
SORMEN TAILERRA
2022/2023**



**D.B.H 1-2.
MAILETAKO
IKASLEENTZAKO**
Gaztekoekin elkarlanean diseinatu eta burutuko den tailerra, arte adierazpide ezberdinetako obrak gozatu eta ondoren sormenaren mundu dibertigarri eta librean barneratuz.
Ausartu hutsunera salto egiten, hegan egingo dugu!



**EGUNA: ASTEAZKENA
(HABABOSTERO BATUKO GARA)**
ORDUTEGIA: 15:00-16:00
DINAMIZATZAILA: PERU MAGDALENA



Euskaraldiko lokalaren argazkia.

Euskaraldia urriaren 27an aurkeztuko dute Durangon

20:00etan egingo dute lokalaren aurkezpena Ezkurdi ondoan

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Badator Euskaraldia, euskararen aldeko ekimena. Badator Euskaraldiaren hirugarren edizioa. Aurtengo edizioa azaroaren 18tik abenduaren 2ra izango da. Aho-bizi eta belarripresten txanda da. 'Hitzez ekiteko garaia' lelopean egingo duten edizioa urriaren 27an aurkeztuko dute Durangon. Aurkezpenaz gainera, lokalaren inaugurazioa ere egingo dute. Ekitaldia lokalean bertan izango da, 20:00etan, Zumalaka-

rregi kalea 2, Ezkurdi ondoan. Antolatzaileek adierazi dutenez, egueneko ekitaldian aurkezpena, musika eta luntxa egongo dira. Bertan, durangarrei aurtengo edizioako nobedadeak aurkeztu, lokalaren funtzioak azaldu eta beste hainbat konturen berri emango diete.
Hori horrela, aurkezpenera joateko eta Euskaraldiagaz bat egiteko deia egin diete herritarrei: "Durangar guztiak zaudete gonbidatuta!".

Politikan

Garazi Errasti
Silloniz
EH-Bildu



Gora Pantxike eta Patxikotxu

Zer polita izan den Pantxike eta Patxikotxu lehen aldiz udaletxeko plazan batera ikustea, gure herriko jaietako sinbolo biak txupinazoan elkarren ondoan egotea. Emozioz beteriko San Fausto jaiak ditugu aurtengoak. Urte bi esperoan egon ondoren, azkenik iritsi diren gure jai preziatuak. Herriko gune guztietara heldu diren jaiak, inoiz ez bezala jaiak auzoetara heldu dira, espektakulua eta ospakizuna erdialdean zentratu beharrean Durangoko auzo guztietara zabaldu baitira.

EH Bilduko zinegotzi bezala ospatzen ditudan bigarren San Fausto jaiak dira, eta azken aste hau hunkigarria izan dela esan beharra daukat.

Txosna guneko txupinazoa lehenik, udaletxekoa ondoren, Artopil banaketa San Fausto egunean, Landako Eskolako gazteen txupinazoa, hainbeste urteren ostean berreskuratu-tako goitibehera jaitsiera, orotariko kontzertuak eta ekitaldi ezberdinak egunetan zehar. Durango herria jai giroan ikustea zoragarria da, eta aurtengoa ditugun ekitaldi eta ekintza ugariak nola gozatzen duten ikustea ere politagoa.

Asteburu konpletoa dugu aurretik oraindik ere. Iraganeko edo geroako garaira eramango gaituen moztorra eguna, tortilla txapelketa, txikientzako jolas parkea, eta beste hainbat ekitaldi.

Jarrai dezagun jaietz gozatz. Jarrai dezagun errespetuzko jai giroaz disfrutatzen. Eskerrik asko ekitaldi eta ekintza guztiak antolatu dituzuenoi eta baita hauetan parte hartu eta ondo pasatzen duzuenoi ere. Zuok gabe ez litzateke jairik izango.

Eta ez ahaztu, GOZATU BAI BAINA ERRESPETUZ JOKATU!

Durungaldea asteen

Abadiñoko nagusiak XXVII. Aste Kulturala egiten dabilta

ABADIÑO | Abadiñon pertsona nagusien XXVII. aste kulturala egiten dabilta, San Prudentzio Nagusien Elkarteak antolatuta. Gaur bingoa eta merienda izango dute, eta domekan meza, bazkaria, dantzaldia eta omenaldia bazkiderik zaharrenei.

Domekan, urriak 23, XXXI. Mikologia Erakusketa egingo dute Elorrioko

ELORRIO | Elorrioko Iturri Zoro elkarteak eta Atxondoko Mikologia Taldeak XXXI. Mikologia Erakusketa antolatu dute Elorrioko Udalaren laguntzagaz. Erakusketa urriaren 23an izango da, 11:30ean, frontoian. Bezperan, urriak 22, perretxiko bila joango dira Oletara.

Elias Cochonen 'Bi itsaso' erakusketa ikusgai azaroaren 17ra arte Zornotzan

ZORNOTZA | Eguaztenetik Elias Cochón Rei artistaren 'Bi itsaso' erakusketa ikusgai dago Zornotzako Zelaieta Zentroan. Erakusketak heterogeneoa eta plurala da, eta leku edo lurralde konplexuak osatzeko eraldatzen diren formak eta bolumenak erakusten ditu. Erakusketa azaroaren 17ra arte egongo da zabalik.



Abadiñoko sokatira taldeari eskainitako murla egiten dabilta Astolan

ABADIÑO | Abadiñoko Udalak 50 metro luze eta 4,5 metro garai den horma irudia eskainiko dio herriko sokatira taldeari. Horma irudi horregaz, Astolatik Zelaietarako zuzenguneari bizia eman gura dio udalak. "Herriko paisaia sokatirako, Abadiñon errota dagoen kiroleko, talde misto baten irudia ipiniko dugu. Seguruenik, udalerriko erreferentzia-puntu berri bat izango da", azaldu du Mikel Garaizabal alkateak.

Aaron Diego Escauriza horma irudigilea dagoeneko badabil murla egiten. Zenbait egun beharko ditu amaitzeko.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

AgroPaper®

NEKAZARITZA













JASANGARRI BATERAKO

NEGUTEGIA







DOMINOA

Marraztu dagokion irudia lauki zurietan.



PIRAMIDEAK

Piramideak osatu, ikusten diren borobiletako zenbakiak elkarren artean batuz.







LABIRINTOA



ITZALAK

Zein itzal dagokio
alboko irudiari?





'El Lago'

DANTZA ELORRIO :: Urriak 21

LaMov dantza konpainiaren azken ikuskizuna, Elorrion

Víctor Jimenezek Errusiako balletaren paradigma berrikusten du *El Lago* dantza ikuskizunean. Erritmoen, mugimenduen eta argi arkitekturen etengabeko irkerketa eta esperimentazioa bereizgarri dituen Jimenezek berezko duen sentiberatasun xarmagarria erabiliko du, aparteko bihurtuz LaMov konpainiaren hizkuntza transgresorea. Ezinezko amodioa seguru duen ballet klasikoaren hari narratibotik urrun, irudizko

laku honetan beltzarga zuridun urmael lez irudikatuko da gizartea. Gizarte horretan, beltzarga beltza matxinatu egingo da, itxuretatik aldentuta egia eta askatasunera heltzeko.

Originaltasun eta lan fisiko handiko dantza ikuskizuna ikusteko aukera egongo da Arriola antzokian, gaur, 20:00etan. Oso plastikoa da. *El Lago* obrak oso harrera ona izan du, bai ikuslearen eta bai kritikaren aldetik.

Urriaren 21ean

BERRIZ dantza

'La psicología del color' (David Segura), 17:00etan, Kultur Etxean.

BERRIZ bisita

Legañoko basoaren ingurune naturala ezagutzeko bisita gidatua, 11:00etan, Berrizko hilerrian. Aranzadi Zientzia Elkarteko Botanika Saileko adituek gidaturiko ibilbidea. Izena emateko 94 682 40 36 telefono zenbakira deitu daiteke edo berriz@berriz.eus helbide elektronikora idatzi. Azken eguna, urriaren 21a.

ZORNOTZA tailerra

'Hilerokoaren inguruko coachinga eta yoga', 10:00etatik 14:00etara, 16tik 20 urtera bitarteko neskei zuzenduta.

Urriaren 22an

BERRIZ musika

'Zuhaitzen doinutan': udaletxe aurreko lorategian zehar bisita gidatu berezia egingo da, musikaz eta bertsoz jantzita, 12:00etan. Umerri eskola aktiboaren eskutik.

ELORRIO irteera

Perretxiko bila irteera Oletara. Elorriko autobus geltokian (feriala), 08:00etan, eta Atxondoko frontoian, 08:15ean. Arratsaldean, Atxondoko talde mikologikoko kideek sailkatuko dituzte.

MALLABIA jaiak

Nesken frontenis maratokia, bikoteka, 09:00etan, frontoian.
'Mallabitarrok egina' (Berbalagun), 10:00etan, Petriletik irtenda. Izena emateko, kultur etxean edo 663 070 492 telefono zenbakira deituta.

ZORNOTZA euskal jaia

Txistularien diana, 10:45ean, Udazken txistulari taldeagaz.
Bertsoak eta Ttupina (Eta Abar bertso eskola), 11:15ean, herriko plazan.
Ikastetxeak dantzan eta kantuz, 11:30ean.
Bertoko produktuen saskien zozketa, 12:30ean (Iraunkor).
Zornotzan Kantuz, 13:00etan, (herriko abesbatzak eta Ederto txistulariak).
Triki kalejira, 13:00etan, Musika Eskolako Triki taldeagaz.
Guztiok Herriko Plazara kalejiran, 14:45ean.
'Oskorri Gogoan' (Zornotzako Musika Banda), 18:30ean.
Triki kalejira Soinutxikie taldeagaz, 19:30ean.
Eingo taldea, 20:30ean, herriko kaleetan.

ZORNOTZA antzerkia

'Pintto Pintto' (Anita Maravillas konpainia), 12:30ean, Zornotza Aretoan.
Bigarren emanaldi bat, 17:30ean.

Urriaren 23an

ABADIÑO bisita gidatua

Gerediagako Batzarlekura bisita gidatua, 11:00etan eta 12:15ean.

ELORRIO dantza

'La psicología del color' (David Segura), 17:00etan, Arriola antzokian.

ELORRIO erakusketa

XXXI. Mikología erakusketa, 11:30ean, frontoian.

MALLABIA jaiak

Nesken frontenis maratokia, bakarka, 09:00etan, frontoian.

Urriaren 23ra bitartean

DURANGO erakusketa

'Latsarriak: emakumeen ahotsa' (Nerea Gastón), Arte eta Historia Museon.

Urriaren 24an

ZALDIBAR berbaldia

'Bizitza sustatzeko suizidioa prebenitu' (Hizlaria: Biziraun elkarteko kideak), 18:30ean, liburutegi zaharrear.

Urriaren 27an

ELORRIO tailerra

Irrintzi ikastaroa, 18:00etatik 20:00etara, Arriola antzokian. Izen-ematea urriaren 24a baino lehenago, Iturri kultur etxean.

MALLABIA jaiak

'Oiz mendia: gune sakratua. Laumilurteko hileta praktikak' berbaldia, 19:00etan, Kontzejuzarrean.

Urriaren 28an

IURRETA ipuinak

'Ipuinak kandel inguruan' (Lur Korta), bibliotekan: 17:00etan, 3tik 5 urtera bitarteko umeentzat, 17:45ean, 6 urtetik gorako umei zuzenduta.

IURRETA helduentzako ipuinak

'Divinas seducciones' (Arnau Vilardebó- Bartzelona), 19:00etan, bibliotekan.

MALLABIA jaiak

Txondor herri kirol taldearen erakustaldia, 17:00etan, parkean.
Txupinazoa, 18:30ean, Kontzejuzarreko balkoitik.
Elizpeko pilota txapelketako finala, 19:00etan, elizpean.
Oilasko pintxoak, 20:30ean, parkean.
eMePebo5t, 21:00etan, parkean.
DJ Gorka Pérez, 00:00etan.

ZALDIBAR musika

Zeharka Flute, 19:00etan, San Andres auzoan.

ZORNOTZA antzerkia

'Yerma' (La Dramática Errante), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Zinema

:: Abadiño

ERROTA KULTUR ETXEA

• Alcarrás

zapatua 22: 19:00

• El colegio de los animales mágicos

domeka 23: 17:00

:: Berriz

KULTUR ETXEA

• Los reglones torcidos de Dios

barikua 21: 19:30

domeka 23: 19:00

• Obey

eguztzena 26: 18:30

:: Durango

ZUGAZA ZINEMA

• Black Adam

barikua 21: 18:30 / 21:00

zapatua 22: 17:30/ 19:30 / 22:00

domeka 23: 17:30 / 19:30

astelehena 24: 18:00 / 20:15

martitzena 25: 18:00 / 20:15

eguztzena 26: 19:00

• Mira cómo corren

barikua 21: 18:30 / 21:00

zapatua 22: 18:00/ 20:00 / 22:00

domeka 23: 18:00 / 20:00

astelehena 24: 18:00 / 20:15

martitzena 25: 18:00 / 20:15

eguztzena 26: 19:00

• Lilo, mi amigo el cocodrilo

barikua 21: 18:30 / 21:00

zapatua 22: 17:00/ 20:00 / 22:00

domeka 23: 17:00 / 20:00

astelehena 24: 18:00 / 20:15

• Mañana

martitzena 25: 19:00

• La Traviata (opera)

eguztzena 26: 19:00

:: Elorrio

ARRIOLA ANTZOKIA

• La traición de Huda

zapatua 22: 20:00

domeka 23: 20:00

astelehena 24: 20:00

:: Zornotza

ZORNOTZA ARETOA

• El Vasco

barikua 21: 20:00

domeka 23: 20:00

astelehena 24: 20:15

• Izurde mutikoa

domeka 23: 17:00

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Durangok jaiak 2022

Urriak 21, barikua
17:00 Gurutze Gorriaren ate irekien jardunaldiak, Ibaizabal parkean. Simulazioa: 19:00etan (Euria bada, San Antonio Ikastetxean)
17:00 Jolas eguna, San Fausto auzoan
18:30 ‘White Botton’ ohe elastikoen ikuskizuna Ramiro Vergasegaz, Aurora Abasolo parkean. (Eguraldi txarragaz, Nevers ikastetxean)
19:00 Tortilla txapelketa, txosnagunean (20:30ean sari banaketa)
20:00 Durangoko abesbatzen kontzertua, Santa Ana elizan: Durangoko Orfeoia, Bogoroditsie, Izar Gaztea eta Begi Argiak
21:00 Zezensuzkoa, San Fausto auzoan
21:00 Kontzertua Bart Sax taldeagaz, Andra Mariko elizpean
22:00 Kontzertua txosnetan: Peio eta Itsua, J Martina eta Merina Gris
23:00 Kontzertua La Casa Azul taldeagaz, Ezkurdin
Urriak 22, zapatua
Txosnaguneko mozorro eguna: 'Denboraren makina'
07:00 Diana txistulariekin
07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin
11:00 Xake txapelketa federatu eta federatu bakoentzat, Ezkurdin. Izen-ematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago. Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea.
11:00-14:00 Umeentzako tailerrak Panpotx taldeagaz, Andra Mariko elizpean
11:00-14:00 Txikientzako haur parkea, Barandiaran kalean. (Euria bada, San Antonio ikastetxean)
11:00-14:00 Haur tailerrak Asebier elkartearen eskutik, Barandiaran kalean
11:00-14:00 Gaztetxoentzako jolasak, Ibaizabal parkean. (Euria bada, Nevers ikastetxean)
12:00 Kalejira txistulariekin
12:00 Kalejira trikitilariekin Txiri Txiri taldearen eskutik

12:00 Patata tortillaren XIII. txapelketa, Landako Gunean. Mailak: 15 urtetik beherakoak/ 16 urtetik gorakoak. Izen-ematea eta informazioa: Intxaurren 3tik aurrera, plazak bete arte
12:30 Xaibor disko-festa haurrentzako berbena, Ezkurdin
14:30 Elkartasun bazkaria, txosnagunean. Txartelak Mesoi Barrian eta Intxaurren. Ostean, elkartasun argazkia
16:00-19:00 Txikientzako haur parkea, Barandiaran kalean (Euria bada, San Antonio ikastetxean)
16:00 XXVI. Larrasoloetako lagunarteko xake txapelketa federatuentzat, Ezkurdin. Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea
17:00 Animazioa trikitixarekin pertsona nagusien egoitzetatik
17:30-19:00 Astronomia eskulan tailerrak eta ur suzirien jaurtiketa, Zuhatzola parkean. (Euria bada, ez da egingo) Antolatzailea: Izarra Astronomia Elkartea
18:00 Dantza ikuskizuna 'Gazte' Oinkari Dantza taldea & Hika Teatroren eskutik, Aurora Abasolo Parkean. (Eguraldi txarragaz, Kurutziaga ikastolan)
18:30 Kalejira DJ Reimygaz, txosnagunean hasita
18:30 Taldekako mozorro desfilea Madalenatik Andra Mariraino. Amaieran, sari zozketa. Izen-ematea: urriaren 1etik 19ra Intxaurren. (Euria bada, Andra Marian)
18:30 Kalejira Sugarri fanfarreagaz, Madalenatik
20:00-22:00 AICE DJa, Andra Marian
21:00 Behaketa astronomikoa, Zuhatzola parkean. (Euria bada, ez da egingo). Antolatzailea: Izarra Astronomia Elkartea
21:00 Zezensuzkoa, San Fausto auzoan
22:00 Orkestra Diamante, Ezkurdin
22:00 DJak txosnagunean: DJ Reimy, Beñat eta Maixa
23:00 AICE DJa, Andra Marikko elizpean
00:00-03:00 Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa, txosnagunean. Antolatzailea: Durangoko Mernialdearen Amankomunazgoko Drogomenpekotasunen Prebentziorako Arloa
Urriak 23, domeka
07:00 Diana txistulariekin

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin
11:00 Mañaria errekaeren garbiketa
11:00-14:00 Txikientzako haur parkea, Barandiaran kalean (Euria bada, Landako Gunean)
11:00-14:00 Gaztetxoentzako jolasak, Ibaizabal parkean (Euria bada, Landako Gunean)
11:45 Tabira Musika Bandak emanaldia egingo du, J.M. Barandiaran egoitzan
12:00 Jolas eguna, Tabira parkean
12:00 Kalejira txistulariekin
12:00 Haur marrazki lehiaketaren sari banaketa, San Fausto auzoan. Antolatzailea: Centro Social San Fausto
12:00 Poneyak eta zaldiak, Ibaizabal parkean (Euria bada, ez da egingo)
12:00-14:00 Arku tirorako gunea, Ibaizabal parkean (Euria bada, Landako gunean)
12:30 Herri kirolak, Ezkurdin
13:15 Kontzertua Tabira Musika Bandagaz, Andra Mariko elizpean
17:00 Dantza modernoa, garaikidea eta urbanoa L' Atelier Dantza Eskolaren eskutik, Ezkurdin
18:00 Mariatxi Internacional De Mexiko, Andra Mariko elizpean
18:30 Kalejira Irulitza fanfarreagaz Alde Zaharretik
19:30 Patxikotxuri eta jaiei agur esateko Gigantes De Luz ikuskizuna udaletxeko plazatik hasita eta tren-kotxera zaharretan
Urriak 29, zapatua
20:00 Durango Txistu Kontzertua 2022 Landako Gunean. Antolatzailea: Silboberri Txistu Elkartea
Urriak 30, domeka
54. Umeen euskal jaia. Antolatzaileak: Tronperri Dantza Taldea eta Txoritxu Alai Dantza Taldea
12:00 Talde guztiak Landako Gunean elkartuko dira, kalejira egingo dute, eta, ondoren, alardea Ezkurdi plazan (Euria bada, Landako Gunean)

Okm:

batzen gaituen distantzia

Egin zaitez anbotokide!

30€ urtean!

abantaila guztiak hemen

>

“Neure buruari galdetzen diot ea egonezina sentitu behar dudan sortzeko, eta ez dut erantzunik topatu oraindino”

Usue Egiak bere bigarren komikia kaleratu du urtebete inguruko epean; pandemia garaian kokaturiko hausnarketa prozesu batean du abiapuntua



**Usue Egi
Fernandez de Retana**

Ilustratzailea

DURANGO | 1992

tropektiboagoa; Chavela Vargas dramatika bat da, eta maitasun erromantikoari buruz asko hausnartu dugu; Nacho Vegas nire artistarik kutunenatariko bat da eta bera ere istorio honetan sartu gura nuen. Garai desberdinetako jendea direnez, gainera, horrek jolasteko aukera gehiago ematen dizu. Oso ondo pasatu nuen nire kuadrilla berri horregaz, egia esateko. Pandemiaren alde dramatiko guztia kenduta, epoka aberasgarria izan da niretzat. Liburu bat ateratzeko denbora eta baliabideak eman dizkit.

Chavela Vargasek sufrimendutik sortzen zuen. Zure kasuan ere horrela izan da?

Sufrimendutik ere idatzi dut, eta esango nuke emozio asko dagoela liburu honetan. Egunerokoa da eta egun askori buruz idatzi eta marraztu dudanean neurrian ikusten da hori. Uste dut leku desberdinetatik idazten dela ondo zaudenean, edo txarto zaudenean; ez zaude leku beretik berba egiten, baina, aldi berean galdetzen diot neure buruari ea egonezina sen-

“Marraztea eta idaztea komunikazio bide bat dira niretzat, eta kontu batzuk kontatu egin behar ditut”

KOMIKIGINTZA • ARITZ MALDONADO

Usue Egi artista durangarrak 'Ura leporaino' komikia kaleratu du oraintsu. Emakume baten hausnarketa eta barne ezagutza prozesuari buruzko lana da, pandemiaren itxialdiko testuinguruan kokaturikoa. *Nik esaten dudalako* komikiagaz egin zuen lez, Nafarroako Denonartean argitaletxeagaz kaleratu du lana. Durango Sor(tzaileen)leku beka gaz kaleratu du komikia, eta esker oneko agertu da udalagaz. **Nork du 'Ura leporaino'?**

Pandemia sasoiaren etxean bakarrik egotea erabaki nuen, autoezagutza ariketa lez; eguneko bost bat ordu marrazteari edo idazteari eskaintzea erabaki nuen; burua ez galtzeko aukera ona zela ere uste nuen. Hasieran, lan horiek ez ziren publikatzeko, neure burua gehiago ezagutzeko baizik, eta sorkuntza garatzeko. Musika asko entzun nuen sasoi hartan, eta elkarriketak imaji-

natzen nituen musikari horiekin. Los Panchosen biniloa jiraka izan nuen itxialdi osoan, eta nire lagunak zirela imajinatzen nuen. Janaria ematen niela ere imajinatzen nuen (barrez). Istoria hauskarketa autobiografiko

“Denbora eta baliabideak behar dira idazteko, eta Virginia Wolfek dioen lez, baina gela propio bat ere”

bat da batez ere, umore eta fantasia ikutuekin; jendea nahiko identifikatuta sentitu daiteke, ez kokatzen den garaia gaitik bakarrik, autoezagutza prozesu bat kontatzen duelako baino.

Beraz, ez zenuen itxaroten liburu bat izatea emaitza.

Ez. Hasieran, egunean bost orri marrazten hasi nintzen, eta ha-

mar egunen buruan 50 orri nituen esku artean. Forma hartzen hasi zen gero, ez eguneroko unitate lez bakarrik; hari batek batzen zuen dena, zentzu bat zuen. Denonartean argitaletxeko editoreari bidali nion, eta ea liburu baterako balio zezakeen galdetu nion. Bazuela zerbait esan zidan, eta jarraitzera animatu ninduen. Hilabetez idatzi eta marraztu nuen. Gero, master amaierako lanari ekin behar izan nion, eta gelditu egin behar izan nuen. Baina liburu erdi baino gehiago neukan eginda. Gero, Durangoko Udalaren Durango Sor(tzaileen)leku beka deialdiak irten ziren.

Liburuak zati nagusi bi ditu, kofinamenduko sasoi eta deskonfinamenduko, eta hiru ataletan dago banatuta. Editoreak askatasun osoa eman zidan idazteko, eta hirutan zatitu nuen, zeozelan egituratzearen. Baina argi utzi gura dut ez dela pandemiari buruzko liburu

bat edo pandemiari buruzko hausnarketa bat. Pandemiak gelditzeko aukera eskaini zidan eta niri gertaturiko gauzak dira istorioaren motorea. Are gehiago, istorioaren ardatza 30 bat urteko emakume baten bizipenak eta hausnarketak dira. Jende bat identifikatuta sentitu daiteke horiekin, pandemiak denok zeharkatu gintuelako. Musikazaleak eta literaturazaleak ere sentitu daitezke identifikatuta.

Zein da liburuan aipatzen duzun kuadrilla berri hori?

Bizitza osoan zehar izan ditut bidelagun horietariko asko, baina bizitako momentu horretan are gehiago behar bada. Henry Purcell, adibidez. Amak CDA oparitu zidan bere garaian, eta Arriagara ere eraman ninduen kontzertu bat ikustera. Pertsonalitate berezi bat eman diot, eta oso ondo pasatu dut istorioan sartzen. Virginia Wolfegaz, adibidez, beste era bateko hartu-eman izan dut, in-

titu behar dudanean sortzeko. Eta ez dut erantzunik topatu oraindino. Denbora eta baliabideak behar dira idazteko, eta Wolfek dioen lez, gela propio bat

Atzera begiratuta, zelan ikusten duzu liburuak?

Autoezagutza ariketa bat balitz lez. Esango nuke biluztu egin naizela lan honetan, baina ez dut lotsagaz begiratzen. Marraztea eta idaztea komunikazio bide bat dira niretzat, eta kontu batzuk kontatu egin behar ditut, idatziz edo marraztuz, nik neuk ulertzeko. Horrez gainera, mugarik barik eta barrutik sortu dut liburu hau. Abenduan aurkezpene egingo dut eta Durangoko Azokan ere egongo naiz, sinatzen. Liburuak bere ibilbidea egitea gura nuke, eta jendeak irakurtzea.

Korta-basoak eta lurretako harginak, Astola aldizkariaren zenbaki berrian

Gerediagak Astola aldizkariaren 16. zenbakia kaleratu du. 8 ikerlan jaso dituzte bertan



Gerediaga elkarteko kideak eta ikerlanetan parte hartu duten batzuk, Izurtzan.

ONDAREA • EKAITZ HERRERA

Gerediaga elkarteak Astola aldizkariaren zenbaki berria kaleratu du. Bertan 8 ikerketa berri batu dituzte, Durangaldeko historia, ondare eta kultura gaiak aletuta. Ohikoa den lez, eskualdeko ikerlariak, askotariko profesionalak eta adituek parte hartu dute testu eta irudietan. Jorraturiko gaiak ere askotarikoak dira. Adrian Burgada geologo durangarrak, adibidez, 1990etik 2020ra bitartean Ibaizabal errekaen goi-arroak izandako paisaia aldaketa eta hirigintza prozesua ikertu ditu. Bestalde,

Juanan Hernández kazetari durangarrak Lepoldo Zugazari egindako elkarrizketa sakona papereratu du. Iosu Ortuondok Durangaldeko korta-basoen inguruko informazioa batu du. Guztira, 50 bat korta-baso identifikatu ditu Oiz, Anboto, Legarmendi eta Aramotz aldeko basoetan. Izurtzako eraikinik enblematikoenari buruz ere badago zer esan. Juan Manuel Cembellinek Etxaburu dorretxeari buruzko datuak jaso ditu ikerlanean. Markel Onaindia kazetari iurretarrak Gallandako eta Santa Apoloniako harrobiei

buruzko informazioa jaso du han beharrean ibilitakoak elkarrizketatuta. ANBOTOn oraintsu elkarrizketaturiko Nerea Gastonek ere bere aztarna utzi du Astola berrian. Durangoko latsarrien iragana jaso du. Jimi Jimenezek Martxoaren 31ko bonbardaketen ondoren kanposantuan lurperatu zituztenak gogoratu ditu, eta Arturo Apraizek begirada ikusgarri bat eskaini dio Durangaldea itsas arrezife bat izan zen sasoiari. Astola aldizkari berria Durangaldeko ohiko saltokietan eskuratu daiteke, 5 euroan.

Egidazu, irakurzaletasuna sustatzeko programan

Amaia Egidazu ilustratzaile durangarrak urriaren 26an, azaroaren 9an eta 30ean eskainiko ditu saioak

IRAKURZALETASUNA • A. M.

Irakurzaletasuna sustatzeko helburuagaz, Berrizko Udalak zenbait saio antolatu du bertako Kultur Etxean. Egitasmo bi prestatu dituzte horretarako. Alde batetik, Kontulekuak programa; Amaia Egidazu idazle eta ilustratzaile durangarrak dinamizatuko ditu saio hauek. Haur literaturaz eta kontakizunez gozatzeko, eta irakurtzeko ohiturak sustatzeko gunea izango da honakoa; 3tik 5 urtera eta 6tik 8 urtera arteko umeentza-

ko taldeak prestatuko dituzte. Egidazuk Etxepare saria jaso zuen *Dorotea* albumagaitik.

Solasaldia Arzallusegaz

Irakurzale kluba ere martxan ipini dute asteen; programak maiatzaren 17ra arte iraungo du. Irakurzaleak hilean behin batuko dira euskal literaturari buruzko iritziak partekatzeko. Azaroaren 23an, Amets Arzallus izango da gonbidatua. *Miñan* liburuari buruz arituko dira egun horretan.



Amaia Egidazu.

Gai librean

Gizonak oporretan

Lagun arteko tertulian, aurrekoan L.k botatako kontzeptu batekin nabil bueltaka. Iradokitzailea iruditu zitzaidan oso. Eta, L.ren baimenarekin, halako jakintza eta definizio herrikoien harripakaria izanik, nolabait forma emateko eta nazionalizatzeko beharra sentitu dut ordutik.

“Gizonak oporretan egon dira azken lau urte hauetan.”

L.ren ondotik, egoera batzuen kalkulua buruz egiten hasi ginen denon artean. Azken urteotan nola lotsagabetu den ingurua orokorrean, gehi, nola lotsagabetu diren gizonak. Inoiz lotsarik izan badute...

Frustrazioak eta errepresioak, egoeratik justifikatuta daudela ematen duen garaia bizi dugu. Aurretik politizatuta zeuden harremanak erlaxatu egin dira,



Ainhoa Olaso Sopelana Behargina

Zure inguruan bizi izan dituzun 'marra gorriak gabeko maskulinitatearen' zenbat kapitulu zenbatu ditzakezu?

Izan ere, ez dakit ez ote diren beti egon oporretan. Urrutiago edo gertuago, baina oporretan

despolitizatu egin direla ez esatearren. Lagun inguruak txikitu ditugu, gune berdintsuetara mugatu ditugu burbuiak ezerosotasunetatik ihesi, eta segurtasuna eman digun edozeri heldu diogu.

Eta horrela, bat batean, zure inguruan bizi izan dituzun “marra gorriak gabeko maskulinitatearen” zenbat kapitulu zenbatu ditzakezu?

Honekin guztiarekin ez da inor interpelatua sentituko, noski. Albokoak eskasago kudeatzen duela, beti dago erasotzaileagoa den norbait. Gainera, sistemaren ondorioz izango da gizona horren gizon, ardurarik hartu gabe jarraitzeko defentsa-modu bikaina. Boterea norbanakoen nukleoetan aurkituko ez balitz bezala... Gorputzetan sartuta, keinuetan inkrustatuta, jokabide eta diskurtsoetan proiektatuta. Sistema bera, beste gauza askoren artean, norbanakoek ere sustengatzen baitute, alegia, gizonak.

Jakin gura nuke, atzera egin dugun. Momentu batean ezkutatu zirenak azaleratu diren edo nork eman dien oporretan hain urrutira joateko baimena. Izan ere, ez dakit ez ote diren beti egon oporretan. Urrutiago edo gertuago, baina oporretan.

Euskal atletismo klubek Espainiako txapelketara sailkatzea bilatuko dute Zornotzako nazioarteko krosean

Zornotzako krosak 68. aldia egingo du domekan, Jauregibarriako landetan. Nazioarteko egutegian sartuta dagoen probak urrezko izendapenari eusten dio aurten ere



Ez dago euririk aurreikusita eta ibilbidea gura baino sikuago egongo dela azaldu dute antolatzaileek.

KROSA • J.D.

Zornotzako Nazioarteko Krosa urtariletik urrira aldatu zuten iaz, krosen nazioarteko egutegi berriak eraginda. Aurten data berdina mantenduko dute eta domeka honetan jokatu da, Jauregibarriako landetan, 09:40an hasita. Data horri eskerrak, krosaren elitean jarraituko du. Are gehiago,

Emakumeen lasterketa 12:15ean hasiko da, eta gizonena 12:50ean. Proba herrikoia ere egingo dute

hiru izendapen posibleetatik —urrea, zilarra eta brontzea— gorenari eusten diote, urrezkoari; eta horixe zen, hain zuzen ere, Zornotza Kirol Elkartekoen helburu nagusia. "Gure nahia beti izan da ahalik eta mailarik gorenean

egotea. Horixe izan da Zornotzako krosaren helburua hasiera-hasieratik", adierazi du elkarteko kidea den Juanjo Anderezek probako aurkezpenean.

Lehiari dagokionez, aurtengo aldia bereziki garrantzitsua izango da euskal klubentzat. Izan ere, azaroaren 13an klubaren arteko Espainiako txapelketa jokatu da Atapuercan (Burgos, Espainia), eta bertan arituko diren euskal klubak Zornotzan erabakiko dira.

Bestelakoan, goi mailako atletak etorriko dira, baina ez onenak. Izan ere, asteburu berean Valentziako maratoi erdia jokatu da, munduko probarik "onenetarikoa" distantzia horretan, eta korrikalari batzuek hura lehenteko dute.

Faboritoak

Gizonetan, Burundiko Rodrigue Kwizera eta Italiako Iliass Aouani

aipatu daitezke faboritoen artean; munduko kros zirkuituko txapel-duna eta Italiako kros txapelduna dira, hurrenez hurren. Emakumeetan, Aimee Pratt britainiarra, Cavatine Nahimana burundiarra eta Cristina Ruiz burgostarra daude irabazteko hautagaien artean. Ruiz Espainiako kros txapelketako azpitxapelduna da.

Goi mailako krosariak datoz, baina ez onenak, egun berean Valentziako maratoi erdia da eta

09:40an hasiko dira lasterketak, mailarik maila. Emakumeen nazioarteko proba absolutua 12:15ean hasiko da, eta gizonena 12:50ean. Elitekoaz gainera, lasterketa herrikoia ere egingo dute ohikoa duten lez.



Berrizburu inguruan egiten dute urtero ziklo-kroseko ibilbidea.

Berrizko ziklo-krosak 12. aldia beteko du domekan, Berrizburu inguruan

Mailarik maila, Berriz Bizikletari Elkarteko antolatzaileek 450 bat parte hartzaile batzea itxaroten dute

ZIKLO KROSA • J.D.

Berriz Bizikletari Elkartek antolatzen duen Ziklo-kros Sari Nagusiak 12. aldia egingo du domekan. Mailarik maila, 450 bat parte hartzaile batuko dira Berrizburu inguruan prestatu duten zirkuituan.

2011n proba berreskuratu zutenetik, zaleentzat urteroko hitzordu bihurtu da Berrizburu inguruko ibilbidera joan eta txirrindulariak bertatik bertara animatzea. Adin guztietako ziklistak batuko dira aurten ere. Master mailakoak izango dira lehiatzen lehenengoak, 09:30ean. Maila honetan lau kategoria daude: 30, 40, 50 eta 60 urtera artekoak. Ondoren, kadete mailakoak irtengo dute, 10:30ean.

Jarraian, 11:15ean, Emakumeen Opena hasiko dute, hiru mailatan: gazte, 23 urtez azpiko eta eliteetan. Nagusien mailan Olatz Odriozola da irabazteko

hautagai nagusia. Beragaz batera, Zalao Trevillo (iaz hirugarren amaitu zuen) eta Lukene Trujillano nabarmendu daitezke faboritoen artean.

Emakumeen opena 11:15ean hasiko da; gizonen elite mailako lasterketa, 13:30ean

Openaren ondoren, harrobiko gazteenen txanda izango da. Kimu mailako eta haur kategoriako umeek Txiki Kopan parte hartuko dute, 12:15ean. 200 bat gaztetxo batuko dira.

Eguneko azken proba elite mailako eta 23 urtez azpiko gizonena izango da, 13:30ean. Irabazteko faboritoen artean Aitor Hernández eta Asier Arregi daude, besteak beste.

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

Errezitaldia / Aurkezpena

Barrenetik zulatzen zaitut.
8 ahots itsasertzetik.

Azaroak 2, eguaztena, 19:00-tan, Durangoko Hitz liburu-dendan. *Doan

DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

“Iazko alditik ikasgai bat atera nuen: handienei irabazteko gai naizela sinestea”

Aitor Elordik bikain hasi du lau t'erdiko txapelketa Joseba Ezkurdia menderatuta. Zapatuan Unai Lasoren kontra jokatuko du



Aitor Elordi
Txakartegi
Aspeko pilotaria
MALLABIA | 1996

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Iaz lehenengoz parte hartu zuen lau eta erdiko txapelketako ligaxkan. Altunaren kontrako estreinako partiduan irabazteko aukera izan zuen, baina azken txanpan zeozer falta izan zitzaion. Azkenean, porrota: 22-17. Aurten, Joseba Ezkurdiaren kontrako estreinakoan emaitza bera islatu du markagailuak partidua- ren amaieran, baina oraingoan ma- llabitarra izan da 22ra heldu dena.

Mahai gainean kolpe gogorra eman zenuen, Aitor!

Tira, nire helburua 22ra heltzea zen. Partidua hasi aurretik, irabazteko aukera gutxi nuela ikusten nuen beharbada, baina aldi berean banuela aukera sinesten nuen. Joko aldetik oso ondo nengoen eta konfiantzagaz irten nuen kantxara. Horrelako partidua irabazita, onen- en kontra jokatzeke kapaz naizela ikusten dut.

12-9 galtzen egotetik 12-18 irabazte- ra pasatu zinen. Bolada on horre- tan egon zen garaipenaren gakoa?

Lehenengo zatia nahiko gogo- rra izan zen. 12-9 heldu ginen atsedenaldira. Hortik bueltan, fisikoki errekuaratuta eta fresko nengoen. Beharbada Ezkurdiari gehiago kostatu zitzaion eta ez zuen zirrikiturik ikusten tantoa amaitzeko. Nik asko asmatu nuen tantoa amaitzerako orduan eta,

bai, hortxe egon zen partiduko gakoa.

Iazko esperientziak lagundu egin ditu aurten kantxan lasaitasunari eusten eta argiago pentsatzen?

Bai. Horrelako izar handien kontra jokatzerakoan, puntako jokala- riak direla kusten duzu eta horrek arrisku bat du: ez sinestea zeure buruarengan, ez sinestea eurei irabazteko kapaz zarela. Altunaren kontra horixe gertatu zitzaidan iaz. Azkenerantz, irabazteko aukera ikusi nuenean, beldurtu-edo egin nintzen. Partidu hartatik eta iazko alditik ikasgai bat atera nuen, aur- tengorako baliagarria izan zaidana:

Neure onena ematen badut, Lasori gerra emateko kapaz naizela uste dut, eta, zorte apur batez, partidua irabazteko

neure buruarengan konfiantza osoa izatea eta handienei irabazte- ko gai naizela sinestea.

Zapatu arratsaldean buruz buruko txapelduna izango duzu aurrean: Unai Laso. Hau ere aurkari gogorra, baina beste jokamolde bat duena. Aldatu egingo duzu partiduari aurre egiteko modua?

Ez. Neurri batean, pilotari desber- dinak dira, bai, baina ez dut uste partiduari modu diferentean aurre egin behar diodanik. Nire helburu nagusia ondo sentitzea eta neure onena ematea izango da. Hori lor- tzen badut, Lasori gerra emateko gai naizela uste dut, eta, zorte apur batez, partidua irabazteko.

Jokaldia

Udazken koloreak

Urtarorik ederrena, askorentzat; basoak kolore dotorez jantzita dauden unea. Zi- klismoan, hausnarketak egiteko tenorea izaten da; hanka-sartzeetatik irakaspena ateratzeko garaia. 2022ko denboraldi amaitu berrian bi izen azpimarratuko nituzke: Pello Bilbao eta Remco Evenepoel. Gernikarra (ardo ona lez), urteetan gora doan heinean, hobera egiten ari da. Oraindik badirudi ez duela langarik jo, abantzu doa etenik gabe. 32 urterekin burutu duen sasoia txapela kentzekoa izan da. 67 lasterketa egunetan hiru aldiz amaitu du podiumean: hirugarren UAE- ko eta Poloniako Tourrean, eta bigarren Alemaniakoan. Itzulia eta Strade Bianche bosgarren bukatu ditu, baita Italiako Giroa ere. Alpeetako Tourrean, oster- a, laugarren egin zuen eta Tirreno-Adriati-



Alfontso Arroio
Monasterio
Kirol kazetaria

2022ko denboraldi amaitu berrian bi izen azpimarratuko nituzke: Pello Bilbao eta Remco Evenepoel

Gernikarra, urteetan gora doan heinean, hobera egiten ari da. Oraindik badirudi ez duela langarik jo

kon bederatzigarren. Hori guztia ez ezik, hiru etapa garaipen ere eskuratu ditu: Itzulian, eta Alpeetako zein Alemaniako Tourrean. Isilean sartu da World Tourra- ren elitean, harrabots handiegirik gabe, zentzuz jokatuz; zentzuduna da-eta, bai hitzez, bai moldez. Goitik beherako zi- klista baita pertsona ere. Aitzitik, Remco

Evenepoel bestelako ziklista da. 22 urteko gaztea, sarri harrokeriaz apaintzen ditu bere garaipenak. Agian, futbolkeri larregi bizikleta gainean aritzeko; keinu itsusiak. Kontuak kontu, flandriarrak dohain ikaragarriak ditu kirolean aritzeko. Fut- bolean, Anderlecht, PSV eta Belgikako 16 urtez azpiko selekzioan aritutakoa, baloia utzi eta lasterka egiteari ekin zion, ondoren pedalei eragiteko. Junior mailan hankapean erabili zituen aurkariak; nahieran irabazten zuen. 19 urterekin elitera igaro eta 2020an Lonbardiako Giroan izandako eroriak bere etorkizuna kinka larrian jarri zuen. Lan eskerga egin ostean, egin dezakeenaren berri eman du denboraldi hondarrean: Donostiako Klasikoa, Vuelta eta Munduko txapelketa bereganatu ditu erakustaldi bikaine- kin. Nerabezaroan bullyinga sufritu eta gaiz- ki pasa zuen. Orain ur-aparretan ari da.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

AUKERA



2 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. 2 terraza. Eguzkitsua. Garaje itxia.

116.000€ C.E.E=E

MARTXOAREN 8KO



ERDI BERRIA. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. Balkoia. Garaje itxia.

330.000 € C.E.E=E

ASKATASUN ETORBIDEA



Ezkurdi zonaldea. 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Garajea aukeran.

240.000 € C.E.E=E

DURANGO



Alde zaharra. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. IGOGAILUA.

150.000€ C.E.E=F

KOMENTUKALE



4 logela, komuna, sukaldea, eskegitokia eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea.

239.500 € C.E.E.= E

BERRIZ



74 m². 3 logela, komuna eta sukalde-egongela. Terraza. 11 m²-ko trastelekua. Berriztatze.

66.000€

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Herriko Gudarien kalea.

3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobe.

ABADIÑO

ABADIÑO: Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldea eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

BERRIZ

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

IURRETA: Orozketa auzoa. Baserri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m²-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatze. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatze. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai.

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarriko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berriztatze.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatze. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifa barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.


//LOKAL

INDUSTRIALA ALOKAIRUAN

BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

www.inmoduranguesado.com

DURANGO




75 m²

3 logela

ANTSO ESTEGIZ: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Etxe erdiak kanpora ematen du. (hegoaldea) Argitsua. Zonalde berdeak eta herriko zerbitzu guztiak gertu (eskola, supermerkatua,...) Egoera onean.

187.000 € C.E.E: Bidean

DURANGO



85 m²

3 logela

ASTEPE: 85 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. Balkoia. Igogailua. Seigarren solairua. Etxe osoak kanpora ematen du. (ipar-hegoaldea) Argitsua. Ikuspegiak. Leku onena kokatua. 6 m²-ko trastelekua. Berrinkuntzak behar ditu. Garajea aukeran + 19.000 €

230.000 € C.E.E: Bidean

MATIENA




95,5 m²

3 logela

EZKURDI: 95,5 m². Egongela handia, sukaldea, 3 logela, komuna, bainugela eta eskegitokia (patioa). Igogailua. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialdea) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuek. ITE oraintsu pasatakoa. Erdi berriztatua. Garajea aukeran + 25.000 € (etxebizitzatik gertu).

275.000 € C.E.E:G

DURANGO




85 m²

2 logela

MARTXOAREN 8'KO: (2008. urtean eraikia): 85 m². Egongela handia, sukalde jantzia, 3 logela, eskegitokia eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde/ mendealde) Argitsua. Hiriguneko sarreratik gertu. Zonalde berdeak eta zerbitzuek. 18 m²-ko garaje itxia.

330.000 € C.E.E: Bidean

DURANGO




93 m²

3 logela

IBAIZABAL: (2.006 urtean eraikia). Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, eskegitokia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-hegoaldea) Argitsua. Leku onean kokatua (zonalde berdeak, eta zerbitzuek) Egoera onean. 29,70 m²-ko garaje bikoitza itxia eta 10,67m²-ko ganbara.

380.000 € C.E.E: Bidean

MUNTSARATS



76,4 m²

4 logela

ARLOZABAL: 76,4 m². Galeria, 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendealde) Argitsua. Leku onean kokatua. (Zonalde berdeak.) 7,50 m²-ko trastelekua eta 14,29 m²-ko garajea. EZIN HOBEA.

189.000 € C.E.E:Bidean

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua eta igogailua. **192.000€/ E.E.Z= F**

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiargaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

JOSEMIEL BARANDIARAN: Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **300.000€ / E.E.Z=D**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 egongela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000€ / E.E.Z=B**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

TRENBIDE KALEA: 5 logela, sukaldea , egongela eta komuna. **LEHEN 175.000€ ORAIN 150.000€ / E.E.Z=F**

//ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZOA: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **LEHEN 120.000 € ORAIN 105.000€ / E.E.Z=F**

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitze 3 baserria lurzorugaz. **290.000 €**

PADURE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **125.000 € / E.E.Z=F**

//GARAI

MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikitze 3 lursailak. Aukera ezberdinak.

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

GONBILAZ AUZOA: Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **420.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

//ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

//BERRIAK

BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **100.000 € / E.E.Z=G**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Zuhaitz (908. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
 661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
 Gozatu Gozotegia
 gozatugozotegia



Zorionak, **Urko**, zure lehenengo urtebetetzean. Mosu pila bat Zaldibarko eta Muxikako familien partez.



Durangoko **Angel Aniak** eta bere iloba **Liherrek** urteak egin zituzten urriaren 15ean eta 23an. Zorionak eta mosu handi-handi bat bioi! Asko maite zaituztegu!



Zorionak, **Elixabete**, zure hamaikagarren urtebetetzean etxeko guztien partez. Ondo pasa eta gozatu zure eguna familiarekin eta lagunekin. Besarkada eta musu handi bat.



Urriaren 12an, amama **Pilik** bere 92. urtebetetzie ospatu eban, mexikarrez inguraturik. Zorionak eta muxu asko etxekuen partez.

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 26° / 14° ☁️

DOMEKA 🌡️ 25° / 18° ☁️☀️

ASTELEHENA 🌡️ 24° / 16° 🌤️

MARTITZENA 🌡️ 26° / 14° 🌧️

EGUAZTENA 🌡️ 27° / 17° 🌤️

EGUENA 🌡️ 26° / 17° ☁️

GAZTEENTZAKO

MINTZA-PRAKTIKA TALDEAK

2022/2023

ENGLISH
Wednesday

15:15-16:45 ENGLISH FOR
YOUNG PEOPLE (15-18 YEARS)

DOAKOA



Antolatzailea



Iurreta
Eleizateko Udala
HERRI BIBLIOTeka
KULTURA SAILA

Laguntzaileak




"Etxekoak izan diren bezero asko ditugu gogoan batez ere, betikoak"

Berrizko Julian txu taberna itxi zuten urriaren 2an, 76 urtean zabalik egon ondoren. Juan Carlos eta Josu Albizuri urteotan izan dituzten bezeroei esker ona adierazi diete



Josu Albizuri Falcon
BERRIZ | 1983

Juan Carlos Albizuri Azpitarte
BERRIZ | 1959

BERRIZ • AITZIBER BASAURI

Julian Albizuri 1946an zabalduko Julian txu jatetxeko txuletek ospe tsu egin dute Berriz urte askoan. Hasierako lokal hark taberna lez jarraitu zuen eta jatetxeak aterpe berria zabaldu zuen alboan. Julian txuk bere bidea egin du. Aste haue tan, Juan Carlos eta Josu Albizuri, Julianen semerik eta bilobarik gaz teenek, jatetxea hustu dute.

Erabaki gaxa izan da jatetxea itxia?

Josu Albizuri: Esango nuke niri pena handiagoa eman didala aitari baino. Julian txu gure etxea izan da, hemen hazitakoak gara lehengusu guztiok. Aitita Julianek okindegia

zabaldu zuen lehenengo, taberna gero, eta jatetxea azkenik.

Juan Carlos Albizuri: Gure aita okindegian hasi zen txuletak erretzen, lagunartean, Txikito de Mallabiak erakutsita. Lau neba-arrebok etxea izan dugu goian, baina lotarako baino ez gara igo. Dena dela, nik pisu bat kendu dut gainetik. Azken urteetan jatetxeak ez du aurrera egiteko eman, eta ni bakarrik nengoen jada. Ohiturak aldatu egin dira eta pandemia kolpe gogorra izan da. Lasaitua hartuko dut.

Falta igarriko duzue?

J.C.A.: Sukaldearen falta igarriko dut, ordu asko eman dut han. 44 urte egin ditut Julian txun, hasieran

zerbitzen, eta sukaldaritzaz dakidana amak erakutsitakoa da. Jualin txuko txuleten ospea aitak eraman du, baina amak lan gehiago egin du.

J.A. Bai. Txuletak parrillan erretzen hamar urtez lan egin nuen bertan, osaba Jabierrek erakutsita. Eta gazteagotan ere tokatu izan zait asteburuetan laguntzera joatea. Julian txuko sukalde zabalik egon da beti, nahiz eta jatetxea itxita egon. **Tradizio handiko jatetxea izanik, pertsona ilustre askok jango zuten bertan.**

J.C.A.: Garai batean, Mertzedarien komentua eta Julian txu ziren famatuak Berrizen. Ministro frankista askoren arrebak zeuden ko

mentuan, eta euren auto eta moto ofizialetan etortzen ziren. Bilboko kontsulatuan zeuden diplomatiko amerikarrak ere etortzen ziren bazkaltzera; behin, horietariko bat kontua ordaindu barik joan zen (barrez); eta garai bateko Athleticeko jokalaririk asko ere etortzen ziren: Zarra, Arieta...

J.A.: Geroago, Guerrero, Etxebarria, Valencia... ere etortzen ziren. Eta Ibarretxe lehendakari ohia ere askotan etorri da, familiagaz.

Bereziki gogoan duzuen bezerorik?

J.A.: Astero etorri den hainbat bezero anonimo. Koinatuagaz etortzen ziren Zornotzako senar-emazteak, domekero mahai berean jesartzen ziren Gernikako anaiak; Mungia Jesus... Etxekoak izan diren bezero asko, betikoak.

Juliantxu txuleten ospea aitak eraman du, Julianek, baina amak lan gehiago egin du jatetxean

Pasarte asko izango duzue gogoan...

J. C.A.: Uda batean, bikote estatubatuar bat hainbat bider etorri zen, eta egun batean esan zidaten Pearl S. Buck-en ilobak zirela. Harrigarria zen, haren liburu guztiak nituen!

J.A.: Askok. Domeka gau batean tximiniak su hartu zuenekoak, adibidez. Ketza handia zabaldu zen eta kanpoan jendea orroka hasi zen, irteten gintezen. Ez genuen gura. Gure etxea zen!

Durangaldetik kanpora ere oihartzun handia izan du jatetxeak.

J.A.: Bai, kanpoko bezero gehiago izan dugu bertokoak baino. Urte batean, 25.000 menu ematera heldu ginen, eta San Blas egun batean 200 lagun eman genien bazkaltzen, hiru txandatan.

J.C.A.: Oso urte onak izan ditugu, baina ez hain onak ere bai.

Txuletak erretzeko sekretua?

J.A.: Aitita Julianek zioen legatza ona bada lurrera bota eta zapalduta ere ona egongo dela. Txuletagaz berdin. Generoa ona bada... Hori bai, puntua asmatu behar.

Lauhortza

Markel Onaindi
Txabarri
Kazetaria



Itzulera

Imajinatzen nago Erramun Martikorena etorkizuna iragartzen duen sorgin baten aurrean, bizitzan hartu beharreko norabideari buruz galdezka. Sorginak erantzun dio 2022an bera izango dela udako kanta abestuko duena, itzelezko hita izango dela. Erramun izuturik geratu da. Nork sinistu? Baina, bai, Erramun izan da pandemia osteko uda zoro honetako soinu bandaren egilea, Rosalíarekin lehian. Eta orain imajinatzen ditut biak elkarrekin 2023ko udako kantaren bideoklippean, Erramun gerria astintzen de laoa laoa... Zergatik ez?

Bueltatu dira jaiak, eta zelako une politak pasa ditugun maite ditugunen ondoan. Jendea alai ikusteak alaitasuna sortzen du; hori ere bizi tzaren parte da eta hiru urte eta gero beharrezkoa genuen. Gure inguruan, sanmigeletan laguntasunaren eta maitasunaren festa apoteosikoa izan genuen Edan taldearen itzuleran, besarkadak eta musuak han eta hemen. Sanfaustoe tan, bestalde, a zelako erokeria ederra den Txosnagunea, auzolanean eta borondatez zenbat jende dabilen lanean! Batzuk txanda egiten, besteak muntatzen, zenbait isilean arazoak konpontzen... Gainera, harrigarria da era askotako taldeak ardurak banatzen zein txandak konpartitzen ikustea, izan sozialistak, komunistak, kirol taldekoak edo aniztasun funtzionala dutenen elkartekoak. Herri biziaren ispilu dira.

Asteburuan amaituko dira uda luze honetako jaiak, baina itzuliko dira berriro. Zer iragarriko ote du sorginak? Ez al gara txoriei mintzo diren zoroak izango, betiko?



Proiektu berria Durangon, efizientea eta terraza zabalekin.

Nuevo proyecto en Durango, eficiente y con grandes terrazas.

INFORMAZIOA / INFORMACIÓN

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com

SAN ROKE BARRIA